

Zintzo-Mintzo zer da?

205 euskaltzale dira Zintzo-Mintzoko bazkide

Herri Aldizkaria

Duela bi urte sortutako euskaltzale elkarte da. Zumarraga eta Urretxuko euskaltzaleak, elkarrekiko harremanetan, administrazioekiko harremanetan eta eguneroko eginkizunetan euskaraz egiteko konpromisuaren inguruan biltzea da elkartearen helbururik nagusia. Ordutik hona, Zintzo-Mintzo helburu hauek lortzeko eta euskara eta euskal kultura indartzeko, lanean diharduen elkarte legeztatua da. Lau lantalde daude elkartearen, Hitzarmena, Kultura, Gazte eta Aldizkaria lantaldeak. Lantalde hauetako bakoitzean 10 bat lagunek dihardute lanean, astero bilerak egin eta ekintza desberdinak antolatuz. Baina lantalde guztiak koordinatu eta elkartearen helburuak bideratzen dituen hilean behin elkartzen den Zuzendaritza Batzordea da.

Egun 205 bazkide gara Zintzo-Mintzo elkartearen, eta elkartearen ezaugarri adierazgarrienetarikoa bat, bere pluraltasuna da. Elkartearen osatzen dugunon artean, 101



Lantaldeetako lagunak

gizonezko eta 104 emakumezko gara. Adinean ere, denetarik badugu, euskaraz bere lehen urratsak ematen ari den Enrique Jesus Mendiola haurra, 14 hilabete eskasekoa, eta helduena den Antonio Salamero, 71 urte dituen. Baina, denok ez gara Zumarraga-Urretxukoak. Zumarragakoak 83 (%40.48), eta Urretxuarrak 109 (%53.17) garen bitartean, Legazpiarrak (6 lagun), Azkoitiarrak (2), Bilbotarrak (1), Donostiarrak (1), Lezotarrak (1), Ezkio-Itsasotarrak (1) eta Aizpurutxoarrak (1) ere baditugu gure lagun euskaltzaleen artean.

Bertsoak


*Lehen argia ikusi zuen
orain duela bi urte
harrezkeroztik buru belarri
lana eginaz jo take
esker on eta mila zorion
zorioneko elkarte
aurrerantzean modu berean
ikusi gura genuke
itzal handiko zuhaitz sendoa
bilakatzen zaigun arte*

Gaia: Zintzo Mintzo eguna.

Doinua: Bizia ez da nehoiz egoiten

*Gariarekin bazkazen dira
txoria eta oilarra
eta kontetu senti ditezten
dute kantatu beharra
hoien kantua ixiltzen bada
gertatu da zerbait txarra
horrelakorik gerta ez dakigun
ez daigun galdu iparra
bere jarduna da hizkuntz batek
duen bizigai bakarra*

Asier Otamendi



Berezitasunak: ARDO, PATTAR eta KONTSERBAK.
Etkez etxeko zerbitzua

Mekolalde, 1 • Tfnoa 72 56 19 - Alm. 72 58 71
20700 URRETXU

Gretel

Gozotokia

Ipeñarrieta 2. URRETXU

A L A S K A
Kafetegia

Kalebarren 72.56.50

42 taldek sinatu dute hitzarmena

O: Zertan, zein lanetan ari zara orain?

I.A.: 1994ko urtarrilean 42 taldek hitzarmena sinatu zutenetik zenbait urrats eman dugu. Lehenengoa taldeetako ordezkariekin harremanetan jarri eta taldeen deskribapen-fitxa egitea izan zen. Ondoren, jarraipena egiten hasi ginen eta taldeen hasierako egoera kontuan izanik nolabaiteko lan-plana zehaztu genion talde bakoitzari, sinatu zuten hitzarmeneko helburuak epekatuz. Honela, talde bakoitzaren antolaketa, funtzionamendua eta idatzizko harremanak ezagutzen ditugu eta, hartutako konpromezuari eutsiz, hitzarmenak irauten duen bitartean taldeetan euskararen erabilera bultzatu nahi dugu.


O: Nola burutzen duzu zure lana?

I.A.: Lan egiteko erari dagokionez, hitzarmena sinatu duten talde guztien eta Zintzo Mintzo lantaldekoen artean jarraipen batzorde bat osatu dugu. Batzorde hori hiru hilabetero biltzen da eta bertan ordura arte egindakoa eta aurrerantzean egin beharreko lana aztertzen dugu. Orain haurren eskolaz kanpoko zerbitzuak

aztertzen hasiak gara: kirola, musika... helburua, haurrek eskolatik kanpo zein hizkuntza erabiltzen duten ezagutzea da. Ezagutzeaz gain, arlo honek duen garrantziaz ohartaraztea nahi dugu eta ikastetxe eta kirol-taldeekin elkarlanean euskara aisialdiko hizkuntza nagusi izatea.

O: Zeintzuk dira aurtengo egitasmoak?

I.A.: Taldeen idatzizko ihardunaren jarraipena egiten jarraitzearekin bat, oraintxe aipatutako azterlana burutzea da lehenengo helburua. Bestalde, administrazio arloko idatziak zuzen idazteko material zehatza prestatzen ari gara taldeei emateko. Esan beharra dago, taldeetako materiala euskaratzeko eta partaideek euskara ikasteko diru-laguntzak ere hor ditugula eta behar dutenei hizkuntza



aholkularitza eskaintzen diegula.

O: Zein behar ikusten duzu?

I.A.: Taldeen partaidetza zuzenagoaren beharra ikusten dut.

O: Legazpiarra izanik euskarari dagokionean gutaz zenuen ikuspegia aldatu da?

I.A.: Egia esan, Zumarraga-Urretxuko egoera oso gainetik ezagutzen nuen. Hala ere, gogoratzen dut lizeora ikastera etorri nintzenean, legazpiarrok alde nabarmena somatu genuela ahozko erabileran. Orain, hemen ere euskararen inguruan jende mordoskak lan egiten duela konturatzeko aukera izan dut.

Legazpin jaioa duela 25 urte •Euskal Filologian lizentziatua • Gasteizko Udaberria euskaltegian eta Legazpiko Udaleko Euskara Zerbitzuan lanean aritua • Norgehiagokeriak kezkatzen du • La sonrisa etrusca da irakurri duen azken liburua • Aisialdian mendira joatea eta etxeko sofan etzanda egotea ditu gustoko • lazko apirilean hasi zen Zintzo Mintzon

Hitzarmena sinatutako taldeak

ALDIRI Kultur Elkartea
ANTXINAKO AMA Txistulari
Taldea
Antzerki Tailerra
ARTIZAR D.L.T.
Askagintza
Bertso Eskola
BISASTI Aek Euskaltegia
Deia Egunkaria
Diario Vasco Egunkaria
Egin Egunkaria
Eitzako Auzo Elkartea eta Festa
Batzordea
Euskadiko Kutxa
GAINZURI Ikastetxea
Gainzuriko Guraso Elkartea

GARAIALDE Lizeoa
Gazte Txokoak
Geltokietako Festa Batzordea
Gipuzkoa-Donostia Kutxa
GOIARGI Txiki Abesbatza
GOIARGI Abesbatza
GOIERRI K.E.
HERRI KIROL Elkartea
Hits & Fits Banda
IRRINTZI Dantza Taldea
J.M. IPARRAGIRRE Institutua
KIMETS Abesbatza
LA SALLE Ludoteka
La Salleko Ikasle Ohiak
LABEAGA Ikastetxea
LEGAZPI Eskola

Lourdesko Ama Ikastola
LURRA Dantza Taldea
OSTADAR Mendi Taldea
SAN JOSE Ikastetxea
SECUNDINO ESNAOLA Musika
Eskola
SEGURA Irratia
UROLA Kirol Elkartea
Urretxuko Txistulari Taldea
Urretxuko Udala
UZUE Udal Euskaltegia
ZELAI ARIZTI Ikastetxea
Zumarraga Kirol Zerbitzua
Zumarraga-Urretxuko
Baserritarren Elkartea
Zumarragako Udala
Zumarragako Udal Musika Banda

Jose Luis Ugarte: toponimia bilketa lehen bait lehen egin beharreko lana da

Kultura taldeak burututako ekintzen artean garrantzitsuenetakoa bekaren antolaketa izan da. Aukeratutakoa Jose Luis Ugarte legazpiarrak proposatutako Zumarraga-Urretxuko toponimia ikerketa izan da. Honek irailean ekin zion lanari eta urte betez arituko da. Lehenago ere, mota honetako lanetan aritutakoa da.

O: Toponimoen bilketa egitea ez da lan erraza; zein da erabiltzen ari zaren lan sistema?

J.L.: Lana hiru fasetan banatu dut, lehenengoa barruko lanari dagokio eta dagoeneko eginga dut. Idatzita dauden ahalaik eta toponimo gehien bildu ditut. Horretarako Zumarraga eta Urretxuko artxibategietan ibili naiz, agiriak bilatu eta liburuen hustuketa egiten. Bigarren fasean, barruko lanean topatutako datuak osatzeko baserrietara bisitaldiak egitea da nere asmoa. Hirugarren fasean aurreko bitan jasotako datu guztiak bildu eta ondorioak aterako ditut.

O: Lan hauek desberdinak dira, zein duzu gustokoen?

J.L.: Lehenengoa da beharbada aspergarriena, bigarren fasea erabat desberdina da baserriarrekin mendia ibiltzeko asmoa dut toki bakoitzari dagokion izen zehatza jasotzeko. Lan hau politagoa da, jendearekin harremanak izaten direlako, baina neketsuagoa da. Ondorioak ateratzea zaila izan daiteke, baina aldi berean politena emaitzak eskaintzen dituelako.

O: Zein da orokorrean toponimoen jatorria?

J.L.: Gehien landu dudana baserriko izenak dira, eta hauek bi jatorri



Jose Luis Ugarte elkarrizketatua
Ene Bada! argazkia

nagusi izaten dituzte. Batetik inguruko landaretzaren izena hartzen dute eta bestetik bertan bizi diren pertsonen izenak.

O: Zenbat toponimo bilatu dituzu dagoeneko?

J.L.: Barruko lanean, mendi, baserri, erreka eta etxeen izenak aztertu eta 2776 desberdin topatu ditut, nahiz eta zenbaitzuen desberdintasuna oso txikia izan. Bisitekin hastean, kopurua bikoiztu daiteke.

O: Izen bitxi edo bereziren bat topatuko zenuen hainbesteren artean?

J.L.: Izenak ez dira beti orain deitzen ditugun bezalakoa izan. Zumarragako toponimoei dagokionez, garai batetan Izazpiri, Aizazpi deitzen zitzaion eta hau beharbada Haitz-azpia izan zitekeen. Urretxuko toponimoetan berriz, XIV. mendeko dokumentuetan Irimo, Irimodo bezala ezagutzen zen.

Kronologia kultura

Kultura Taldeak hainbat ekintza antolatu ditu 94. urtean. Hauek jendearen partaidetzaren aldetik erantzun desberdina izan dute. Balorapena egiteko orduan esan daiteke Urretxuko festetan antolatutako kantu afariak eta urtarrileko Koldo Amestoi ipuin kontalariaren emanaldiak bildu zutela jende gehien. Dirudienaz, Juan Garmendia Larrañagaren ihauteriei buruzko hitzaldiak izan zuen erantzunik eskasena.

Hona hemen taldeak antolatutako ekintzak:

Urtarrilak 19: Zumarraga-Urretxuri buruzko ikerketa lan bat egiteko beka deialdia.

Urtarrilak 29: Koldo Amestoi Ipar Euskal Herriko ipuin kontalariaren ekitaldia.

Otsailak 8: Juan Garmendia Larrañagak emandako ihauteriei buruzko hitzaldia.

Maiatzak 19: Patziku Perurena idazlearen hitzaldia.

Ekainak 5: Egunerdiko kultur ibilaldia Zerainera. Mehategiak, San Blas baseliza, zerrategia, museoa eta kartzela ikusi ziren.

Ekainak 21: Trikitixa eta gazteak gaiaren inguruan solasaldia eta soinu saioa.

Irailak 26: Urretxuko Santa Anastasia jaietan koadrila eguna girotuz, iluntzeko 8etan txiste lehiaketa abenidan.



Urretxuko Jaietako kantu afaria

Irailak 26: Bederatzi t'erdietan kantu afaria abenidan, bokata on bat janez. Hainbat abeslari eta musiak talde euskaldunen abestiak kantatu ziren soinu-jole eta musikarien laguntzaz.

IPARRAGIRE, 20
URRETXU

NAVARRO jaietxea

486 DX2-66Mhz
4Mb RAM
SVGA 1024 L.B.V.
260 Mb HD
CONTROL L.B.V.
155.000 pts.


Urtarrilean Informatika eta
Ingeles ikastaro berriak.

Labeaga, 31 - Areizaga, 12
Tfnoa. 72 52 98 - URRETXU

IN
Informatika

**Publizitatea egiteko
dei 72.57.75era
arratsaldetan**

Gazte gera gazte eta ze arraio, euskeraz!



Epa gazte!

Zintzo-Mintzoko Gazte taldeko taldekide izan nahi baduk/n
orain daukak/n aukera!

Aisialdia giro onean pasatzeko hainbat ekintza antolatu
diti(n)agu orain arte eta aurten ere lan horretan jarraitzeko asmoa
di(n)agu.

Animatu hadi, ez hadi kanpoan geratu, parte har ezak/n, egin
hadi Zintzo-Mintzoko Gazte taldeko partaide.

Gazteok, euskararik gabe, akabo fandangoa

Gazte taldea

Otamotz aldizkaria etxean dohainik jaso nahi nuke:

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Moztu eta bidali datuak Labeaga 12, etxeazpira (Aterpe
zena) Urretxu edo deitu arratsaldetan 72.57.75era.

Gazteok urtean zehar egindakoen
arteak, hauetxek azpimarra daitezke:

Urtarrilak 4: Euskararen aldeko
Gazte Ituna sinatu zuten 150 gazte
inguruk, euskaraz bizitzeko
erreferentzia berriak sortzen hastea
zelarik helburu.

Martxoan, Ihauterietako
Larunbatean, gazte-afari herrikoia
izan zen.



Euskararen alde bildutako 700 lagun

Martxoak 24: Mus eta Futbolin
Txapelketa.

Apirilak 1: Futbito Txapelketa.

Uztalean Zumarragako Jaietan,
euskararen aldeko giza-katea: 700 bat
lagun bildu ziren bertan, erraldoi,
dultzainariak eta trikitilariekin batera.

Bittor Aiaperen jaialdia orduan
antolatu zen.

Irailean, Urretxuko Jaien barru,
euskararen aldeko kandela piztea
Xabier Amurizaren parte-
hartzearekin.


Abenduak 29: Gaztetxeari
buruzko mahaiingurua.

Horrezaz gain, 300 kamiseta saldu
dira.

Ganbarara

Paperdenda

Labeaga, 52



Gernikako Arbola Plaza, 5 - behea A

Tfnoa. (943) 72 59 71

URRETXU

■ ■ ■ ■ ■

F/s

Foto Estudio

Fotografía y Video

Ipñarrieta, 20 - Tel. 72 23 19 - Urretxu

Aitzkorri, 1 - Tel. 73 06 84 - Legazpi

■ ■ ■ ■ ■